


BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure enpresak besteetatik bereizteko, teknologia berriak inplementatzen ditu.

Nola egiten dugu? Orokorrean bainerak ekoizteko prozesuan teknologia aurreratua erabiltzen da prozesu automatizatuago bat delako, baina gero amaierako produktuak oso oinarrizkoak dira. Horregatik gure ustez teknologiak eskaintzen dizkigun abantailak erabiltzea ezinbestekoa da produktu hobetoak eta ez hain oinarrizkoak sortzeko. Horrek esan nahi du gure produktuak pertsonalizatuak izan beharko direla. Bezero bakoitzaren nahietara egokituz. Horrela beste abantaila garrantzitsu bat eskainiko diegu gure bezeroei, pertsonalizatzeko aukera, orokorrean sektore honetan lantzen ez den zati bat delako.

Sarrerako modelo bat daukagu:



Modelo honetan oinarririk, bezeroaren beharretara egokitzeko ahalmena dago aldaketak eginez. Baineraren atal nagusienetarikoa, telebista eta uraren temperatura aldatzeko gaitasuna dira. Horregatik Kirivbati S.L. ez du gomendatzen aurrerapen hauek kentzea (hala ere, aukera ematen da). Beraz, pertsonalizatzeko aukera dagoenez, bezeroentzat askoz errazagoa izango da nahi duten produktua aurkitzea.

Kirolariek ariketa gogorak egin eta gero giharrek errekuperatzeko eta lesioak sahiesteko, ur oso hotzean sartzea gomendatzen da. Askotan ez da erraza ura horren hotza baineratik ateratzea, eta gelak erabili behar dituzte. Gure baineretan ez da kasua, ur oso hotza emateko gaitasuna eskaintzen du. Horregatik gure produktua kirolariei zuzenduta dago eta erabilpena orokorrean giharren errekuperaziorako izango denez, denbora hori ahalik eta erosoena izatea da gure helburua. Ez da erraza ur izoztuan sartzea, baina bainera ersoa, telebista eta hidromasajea izanda, askoz ere eramangarriagoa da.

Bestalde, kompetenziarengandik desberdintzen gaituen karakteristika nagusia, uraren tenperatura aldatzeko gaitasuna da, ura bera aldatu behar gabe. Teknologia berri bati esker egin dezakegu eta horrela uraren gehiegizko erabilpena sahiesten dugu. Orain garrantzi handia dauka ingurumena zaintzea eta produktu berriak ahalik eta ekologikoenak izatea saiatu behar gara. Horregatik eskaintzen dugun berrikuntzak eragin positiboa izango du ingurunean, ura aprobetxatuz ez delako hainbeste gastatu behar. Honek ez du esan nahi ura aldatu behar ez denik, igerilekuak ez bezala, garbiketa sistematik ez dauka, beraz noizbehinka ura aldatzea gomendatzen da.

Bestalde, diseinuan ikus daitekeen bezala, oso diseinu minimalista da eta gehiegikeriak sahiesten ditu. Adibidez telebista ezkutagarria izateak, erabiltzen ez den bitartean diseinua finagoa gelditzen da. Iturria ere ikus daiteke oso zuzena dela. Baita gehigarriak ere, besteak beste, mandoa, izozkailua eta gelarentzako tokia. Gainera, gure sarrerako modeloan ez dago barneratuta, baina soinu ona nahi dutenentzako, soinu ekipa bat jar daiteke.

Atal honetan, ez dugu pertsonalizatzeko aukera handirik ematen, gure diseinu minimalista, markaren ezaugarri bat delako. Horregatik ezin dira diseinuarekiko aldaketa handiak egin, gure produktuaz gain, diseinua ere eskaintzen dugulako. Hala ere, atal hau izan ezik gainontzekoa alda daiteke, modeloa, gehigarriak...

Prezioari dagokionez, izan daiteke kirolari batzuei garestia iruditzea, baina baineraz aparte, mantenu zerbitzua ere eskaintzen dugu. Gainera, teknologia aurreratuen erabilpenak arazoak ere ekar ditzake, horregatik mantenu zerbitzua ematen dugu.

Eslogana:

1. “Imagina dezakezun guztia bainera batean”